

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

• Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure bezeroei eskainiko diegun produktua BabyWheel du izena. Haur-kotxe bat da patinete elektriko batera lotuta. Honekin gure bezeroei joan behar diren lekuetara azkarrago joatea eta ahalegin gutxiago egin barik edo nekatu gabe ahalbidetzen diegu. Arazo fisiko edo gaixotasun bat baldin badute haien seme-alabekin hobeago konpontzea ere ahalbidetzen diegu.

• Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

- Prezioaren aldetik, oso oreka ona egongo da prezioaren eta kalitatearen artean, hau da, prezioa 1500€ ingurukoa izango zen baina kontuan hartuta haur-kotxe bat eta patinete elektriko bat erosten ari direla oso kalitate onean ondo dago.
- Kalitatearen aldetik, diru kantitate handia inbertituko dugu gure bezeroei ahal dugun produktu onena eskaintzeko eta ahalik eta denbora gehien irauntzeko.
- Diseinuaren aldetik, oso simpleak izango dira munduko pertsona guztientzat balio dezan.
- Segurtasunaren aldetik, egin ahal dugun seguruenak egingo ditugu, hau da, lor dezakezun gehieneko abiadura 20km/h -koa izango da. Haurra lotzeko aukera ere izango du, eta oso zaila izango da jauzte.
- Erabiltzeko oso erraza izango da. Oso eroso ere: ez da oso handia eta pisutsua izango eta tolesgarria izango da.